

ADISKIDE PLANA SUSTAPENAREN BALDINTZAK

Zer da Adiskide Plana?

Adiskide Plana IBERDROLAren Zure Neurrirako Planen ($\leq 15\text{kW}$ -ko potentziako tarifak) edo online eskura daitekeen edozein Gas Planaren (urtean 50.000 kWh baino gutxiagoko kontsumoa duten tarifak) egungo bezeroei eta, egungo bezeroek hala gomendatuta, iberdrola.es webgunearen bitartez kontratatzen duten bezero berriei begirako sustapen-kanpaina bat da.

Zenbat irauten du sustapenak?

Sustapena 2018/10/28ko 00:00etatik 2019/06/30ko 23:59etara online egindako kontratazioei aplikatuko zaie. IBERDROLAK eskubidea du epe hori aldatzeko; hala eginez gero, bitarteko horretan argitaratuko da.

Nork parte har dezake?

Sustapen-kanpaina parte har dezakete IBERDROLAren Zure Neurrirako Planak ($\leq 15\text{kW}$ -ko potentziako tarifak) indarrean dituzten pertsona fisiko eta adinez nagusiek. Bezero horiek (aurrerantzean, aita-amabitiak) lagunak nahiz senideak (aurrerantzean, seme-alababitiak) gonbidatu ahal izango dituzte Zure Neurrirako Plan bat ($\leq 15\text{kW}$ -ko potentziako tarifak) kontratatza, webgunearen bidez. Halaber, parte hartu ahal izango dute IBERDROLAren online eskura daitekeen edozein Gas Plana (urtean 50.000 kWh baino gutxiagoko kontsumoa duten tarifak) duten pertsona fisiko eta adinez nagusiek. Bezero horiek (aurrerantzean, aita-amabitiak) lagunak nahiz senideak (aurrerantzean, seme-alababitiak) gonbidatu ahal izango dituzte online esku daitekeen edozein Gas Plan bat (urtean 50.000 kWh baino gutxiagoko kontsumoa duten tarifak) kontratatza, webgunearen bidez. Sustapen hau ez da aplikatuko, baldin eta seme-alababiti dagoeneko IBERDROLAren bezero bada. IBERDROLAK eskubidea du sustapen-kanpainatik kanpo uzteko sustapenean iruzur egiten duen edo sustapena aldatzen edo erabilezin uzten duen partaide oro. Halaber, IBERDROLAren irudiari, haren bezeroenari edo gainerako partaideenari nahita edo nahi gabe kalte egiten dion partaide oro ere bazter geratuko da.

Nola gonbida ditzake aita-amabiti batek seme-alababitiak?

Bere IFZ, pasaporte edo AIZren zenbakia eman beharko dio seme-alababitiari (kontratuaren titularra den heinean), hark IBERDROLAri jakinaraz diezaion Zure Neurrirako Plana online kontratatzen duenean.

Zer egin behar du seme-alababitiak?

Seme-alababitiak Zure Neurrirako Plana kontratatzen badu gure webgunean, "senide edo lagun batek gomendatuta nator" adierazi beharko du, eta "Nire Bezero Datuak" atalean aita-amabitiaren IFZ, pasaporte edo AIZren zenbakia adierazi beharko du.

Zer pizgarri jasoko dute?

Seme-alababitiak Zure Neurrirako Plan bat (2.0 eta 2.1 tarifak) kontratatzen badu, kontratuaren alta egin ondoren honako hauek eskuratuko dituzte:

- Aita-amabitiak 25 euroko deskontua izango du kontratua egiten duen seme-alababiti bakoitzeko, gehienez ere 125 eurora arte (kontratua egiten duten lehen 5 seme-alababitiak), bere fakturako elektrizitate-kontsumoaren prezioan. Pizgarria BEZa aplikatu ondoren deskontatuko da. Bezeroa den aita-amabitiak Zure Neurrirako Plan bat baino gehiago baditu Iberdrolarekin, deskontua baliorik handiena duen kontratuan aplikatuko da.
- Seme-alababitiak 25 euroko deskontua izango du bere lehenengo fakturako zenbatekoan. Seme-alababitiak beti jasoko dute pizgarria, nahiz eta aita-amabitiak 125 euroko muga gainditua izan. Pizgarria BEZa aplikatu aurretik deskontatuko da.

Fakturako elektrizitate-kontsumoaren zenbatekoa deskontuaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, gainerako zenbatekoa hurrengo fakturretatik deskontatuko da, deskontuaren zenbateko osoa bete arte.